



IDEIA

HaziBizi belaunaldien arteko komunitate bizia eta solidarioa sortzea helburu duen enpresa da, 35 urtetik beherako gazteak eta 65 urtetik gorako adinekoak elkarrekin bizi-araziz. Proiektuak bi arazo nagusiri erantzuten die: gazteen etxebizitza eskuratzeko zailtasunei eta adinekoen bakardade eta isolamenduari.

Komunitateak ez du soilik etxebizitza eskaintzen, baizik eta bizimodu jasangarri, gizatiar eta parte-hartzaile bat. Bizilagunek elkarri laguntzen diote, jardueretan parte hartzen dute (tailerrak, jolasak, ikastaroak...) eta enpresak komunitatearen jarraipena eta kudeaketa aktiboa egiten du.

Gure enpresak energia berriztagarriak eta teknologia berriak erabiltzen ditu, ingurumenarekiko errespetua, berdintasuna eta ongizate partekatua sustatuz. Enpresa pribatu eta sozial gisa, eredu berritzailea eskaintzen du: komunitate inklusibo, jasangarri eta elkartasunean oinarritua, Garapen Jasangarriko Helburuekin bat eginez.